



EUSKAL HERRIKO XIV. EKONOMIAKO OLINPIADA

2023ko MARTXOAREN 24a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak 3 zati ditu: lehenik, 15 galderako test bat; bigarrenik, bi ariketa praktiko, bata batxilergoko bigarren mailako “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa” atalekoa eta, bestea, batxilergoko lehen mailako “Ekonomia” atalekoa, eta, azkenik, testu bat iruzkinak egiteko.
- Lehen zatia **baztertzaileria** da eta 4 puntuko balioa du. **Erantzun okerrak ez dira zigortzen, eta gutxienez 8 erantzun zuzen izan behar dira.**
- Ariketak praktikoek eta iruzkinak egiteko testuak, bakoitzak 2 puntuko balioa du. Bereziki baloratuko dira gaia ulertzeko gaitasuna eta erantzunen arrazoinamendua.
- Azterketaren iraupena 2 ordukoa izango da.

1. ATALA: TEST GALDERAK

1. **Leasing** finantzarioa, enpresa baten produkzio-prozesurako behar diren makinak finantzatzeko erabiltzen dena, nola sailka daiteke?
 - a) Epe luzeko Finantzaketa propioa.
 - b) Epe laburreko Finantzaketa propioa.
 - c) Epe laburreko Kanpo-finantzaketa.
 - d) Epe luzeko Kanpo-finantzaketa.

2. Produktuaren bizi-zikloaren zein etapatan dira handiagoak salmentak?
 - a) Sarreran.
 - b) Hazkundean.
 - c) Heldutasunean.
 - d) Gainbeheran.

3. Adierazi erantzun ZUZENA AMIA (erdarazko sigletan DAFO) analisiari dagokionez:
 - a) Enpresaren antolamendu-egituraren irudikapen grafikoa da.
 - b) Erakunde baten inguruneari dagozkion mehatxuak eta aukerak zein enpresa baten barneko ahuleziak eta indarguneak zehazteko aukera ematen du.
 - c) Egindako inbertsioaren itzulera neurtzeko tresna erabilgarria da.
 - d) Bestelako finantzaketa propioa barne hartzen du, epe laburrekoa zein luzekoa.

4. Elementu hauetatik, zein da ekonomiaren ingurune espezifikoaren atala?
 - a) Herrialde baten egoera ekonomiko-finantzarioa.
 - b) Produktu jakin baten ordezkotako produktuaren ezaugarriak eta eskaria.
 - c) Inflazio tasaren eta interes-tasaren egoera.
 - d) Lan-arloko legeria espezifikoak, familia-kontziliazioari buruzkoa.

5. Enpresa baten egin beharreko funtzio guztiak zehazten dituen egitura bat diseinatzea, erantzukizunak esleitzea eta dagokion agintaritzaren izendatzea, honako funtzio hauei lotuta dago:
 - a) Plangintza-funtzioa.
 - b) Antolaketa-funtzioa.
 - c) Kudeaketa-funtzioa.
 - d) Kontrol-funtzioa.

6. Legeriak, enpresa bat sortzeko era juridiko ugari ezartzen ditu, bakoitza bere berezitasunekin. Adieraz ezazu zein den erantzun OKERRA:
 - a) Sozietate kolektibo bat sortzea, non sozietatearen zorren gaineko erantzukizuna mugagabea den bazkideentzat, eta ez den gutxieneko kapital sozialik behar.
 - b) Sozietate komanditarioa sortzea. Sozietate horietan bi bazkide mota daude: bazkide kolektiboak eta bazkide komanditarioak. Bazkide komanditarioak dira kapitala jartzen

duinak, haien erantzukizuna jarritako kapital horretara mugatzen da eta ez dago gutxieneko legezko kapital sozialik.

- c) Erantzukizun mugatuko pertsona bakarreko sozietate bat sortzea. Sozietate horietan bazkide bakar bat egon daiteke, eta haren gutxieneko ekarpena 6.000 eurokoa izan behar da, eta haren erantzukizuna jarritako kapital horretara mugatzen da.
- d) Sozietate anonimo bat sortzea. Hau da, nortasun juridikoa duen merkataritza-sozietate bat, non kapitala, akziotan banatuta, bazkideen ekarpenek osatzen duten, zeintzuek ez duten zertan sozietatearen zorrei pertsonalki erantzun behar. Gutxieneko kapitala 60.000 €-koa da.

7. Enpresen dimentsioari dagokionez, adieraz ezazu zein den baieztapen OKERRA:

- a) MIKROENPRESA: Langile kopurua: 1etik 10era.
- b) ENPRESA TXIKIA: Aktiboa: 2.000.000 € edo txikiagoa.
- c) ENPRESA ERTAINA: Salmenta-bolumena: 50.000.000 €edo txikiagoa.
- d) ENPRESA HANDIA: Langile kopurua: 250 baino gehiago. Aktiboa: 43.000.000 €-tik gorakoa. Salmenta-bolumena: 50.000.000 €-tik gorakoa.

8. Enpresa baten ekoizpenari eta haren kostuei dagokienez, adieraz ezazu zein den baieztapen OKERRA:

- a) Kostu finkoak: ekoiztutako kantitatearekin zerikusirik ez duten kostuak. Ekoizpena zero bada, enpresak kostu horiei aurre egin behar die.
- b) Zuzeneko kostuak: produktu baten ekoizpenarekin zuzenean lotutako kostuak. Automobilgintzako lantegi baten kasuan, adibidez, lokalaren alokairua edo administrazioko langileen soldata izan daitezke.
- c) Unitate bakoitzaren batez besteko kostua kalkulatzeko, kostu finko eta aldakorrez gain, ekoiztutako unitateak ere ezagutu behar dira.
- d) Enpresa batek ekoizpen-kostu guztiak salmenta kopuru batekin estali nahi dituenean, puntu-hila edo errentagarritasun-atalasea kalkulatu behar du.

9. Gasteizetik Bartzelonara joateko hegazkina edo autobusa har dezaket. Hegazkinean ordubete behar dut eta prezioa 90 €-koa da; autobusean, berriz, 5 ordu behar ditut eta txartelaren prezioa 40 €-koa da. Orduko 15 € irabazten baditut, zehaztu zein izango den niretzat garraibiderik merkeena aukera-kostuari dagokionez:

- a) Hegazkina autobusa baino garestiagoa da. Hegazkinaren aukera-kostua autobusaren aukera-kostua baino 50 € handiagoa da.
- b) Hegazkina autobusa baino merkeagoa da. Hegazkinaren aukera-kostua 15 € da eta autobusaren aukera-kostua 75 €.
- c) Hegazkina autobusa baino merkeagoa da. Hegazkinaren aukera-kostua autobusaren aukera-kostua baino 10 € baxuagoa da.
- d) Aurreko bat ere ez.

10. Ondasun jakin baten eskari- eta eskaintza-funtzioak honako hauek dira:

$Q^d = 450$ eta $Q^s = 270 + 2P$; non P ondasunaren prezioa den eta Q, kantitatea.

- a) Oreka-puntuan: $P_0 = 360$ u.m. (unitate monetarioak) eta $Q_0 = 720$ u. (unitateak).
- b) Oreka puntuan: eskariaren prezioaren elastikotasuna zero da ($E_p = 0$) eta eskaintzaren prezioaren elastikotasuna 0,4 da ($E_s = 0,4$).
- c) $P_0 = 90$ u.m. denean 18 unitateko desoreka dago.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

11. Adieraz ezazu egoera hauetako zeinek eragingo duen kanpo-eragin positibo bat ekoizpenean

- a) A gripearen aurkako txertoak garatzea.
- b) Batxilergoko irakasleek metodologia aktiboekin lotutako masterra egitea.
- c) Bilboko Arte Ederren Museora joatea ikasturte-amaierako festa gisa.
- d) Apustu-etxeen publizitatea telebistan ematea.

12. Coldplayk Bilbon emango duen kontzertu baterako eskaria $Q^d = 20.000 - 50P$ da (bertan P prezioa da) eta pabiloiaren edukiera 8.000 pertsona.

Sarrera 150 € kobratzea pentsatu da, baina 4.500 pertsonako gehiegizko eskaria sortaraziko litzatekeela kalkulatu da. Kalkulatu zenbatean aldatu beharko litzatekeen prezioa gehiegizko eskari hori ezabatzeko.

- a) % 10 handitu beharko litzateke.
- b) % 30 murriztu beharko litzateke.
- c) % 60 handitu beharko litzateke.
- d) Ezin da gehiegizko eskaria ezabatu, eskaintza guztiz inelastikoa delako.

13. Europak Estatu Batuekiko esportazioak sustatu nahi baditu, adieraz ezazu Banku Zentralaren zein esku-hartzek lagunduko lukeen helburu horretan:

- a) Dolarrak erostea, euroaren balio-galera eragiteko.
- b) Dolarrak saltzea, dolarraren balio-handitzea eragiteko.
- c) Euroak erostea, euroaren balio-handitzea eragiteko.
- d) Euroak saltzea, euroaren balio-handitzea eragiteko.

14. Adierazi baieztapen hauetako zein den zuzena enpresa lehiakor batentzako:

- a) Diru-sarrera marjinala prezioaren berdina da, baina batez besteko diru-sarrera baino handiagoa.
- b) Diru-sarrera marjinala prezioaren berdina da, baina batez besteko diru-sarrera baino txikiagoa.
- c) Diru-sarrera marjinala prezioaren berdina da, eta batez besteko diru-sarreraren berdina.
- d) Diru-sarrera marjinala ez da prezioaren berdina.

15. Enpresek, langileak kontratatzen dituztenean, ez dakite zer ekoizpen-ahalmen duten. Ezjakintasun horren aurrean, honako hauek erabiltzen dituzte gaitasun horren seinale gisa:

- a) Lan-esperientzia.
- b) Hezkuntza-maila.
- c) Adina.
- d) Hilabete bateko lanaldi proba, kontratuan adostutakoa.

2. ATALA: EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETAKO ARIKETA PRAKTIKOAK

1. ARIKETA

BILBO S.M. enpresak, "minipuppi"-ak ekoizten eta merkaturatzen dituenak, 55.000 unitate ekoizti eta saldu zituen 2022an eta honako baliabide hauek behar izan ziren:

- Kostu finkoak:
 - 5 langile (220 egun/urtean), lanaldi osoan (8 ordu egunean), 10 €/ordu kostuarekin.
 - Hainbat gastu: 1.800 €.
- Kostu aldakorak:
 - Makineria: 3 produkzio-ordu fabrikatutako unitate bakoitzeko (kostua = 1,5 €/ orduko).
 - Materialak: 3 € fabrikatutako unitate bakoitzeko.

Minipuppi guztiak saldu ziren eta bakoitza 10 €tan.

ESKATZEN DENA:

- a) Kalkulatu puntu-hila edo errentagarritasun-atalasea eta emaitza interpretatu. (0,4 PUNTU).
- b) Kalkulatu 2022ko ekitaldian lortutako emaitza. (0,4 PUNTU).
- c) Enpresaren ekoizpen-ahalmena 40.000 unitatera mugaturik balego, kalkulatu emaitza eta interpretatu lortutako datua. (0,4 PUNTU).
- d) 2023an enpresak lanaldi osoko bi langile gehiago kontratatzeke aurreikuspena egin du (gainerako guztia egoera berean mantenduko litzateke, jatorrian dagoen bezala); horrek 15.000 unitate gehiago ekoiztea ahalbidetuko du. Justifikatu (beharrezko kalkuluekin eta azalpenekin) enpresaren emaitzak hobera egingo duen ala ez.
- e) Azter ezazu, 2023an bi langile kontratatzeak enpresaren produktibitate globala hobetuko duen, beharrezkoak diren kalkuluak eginez. Erantzuna argudiatu ezazu.

2. ARIKETA

LIBERTY, 2021erako eta 2022rako Kontabilitate Nazionalaren (milioi eurotan) eta lan-merkatuaren (milaka pertsonatan) makromagnitudeetarako datu hauek dituen herrialde bat da.

Taulan aurkeztutako makromagnitudeak honako hauek dira:

- BPG: Barne Produktu Gordina
- PNG: Produktu Nazional Gordina
- FNE: Faktore Nazionalen Errentak –atzerrian-
- AFE: Atzerriko Faktoreen Errentak –herrialdean-
- BPGd: Barne Produktu Gordinaren Deflaktorea
- BG: Balio-galera

Kontabilitate nazionala						
Urtea	BPG (prezio korranteak)	PNG (prezio korranteak)	FNE (prezio korranteak)	AFE (prezio korranteak)	BPGd	BG (prezio korranteak)
2021	140		30	20	100	10
2022		130	30	20	80	15
Lan Merkatua						
Urtea	Populazio Totala (pertsonak) -milakotan-	Lan egiteko adinean dagoen biztanleria (pertsonak) -milakotan-	Langabetuak (pertsonak) -milakotan-	Aktibitate Tasa %		
2022	50.000	35.500	2.800	80%		

ESKATZEN DENA:

- a) Kalkulatu 2022an LIBERTY herrialdean lanean diharduen pertsonen kopurua. (0,5 PUNTU)
- b) Kalkulatu BPG errearen aldaketa-tasa. (0,5 PUNTU)
- c) Kalkulatu inflazio-tasa eta interpretatu emaitza. (0,5 PUNTU)
- d) LIBERTYren ekonomiaren BPG nominalaren aldaketa eta inflazio-tasa ikusita, zer esan dezakezu 2022an ekoiztutako ondasun eta zerbitzuen kopuruari buruz 2021arekin alderatuta? Argudiatu zure erantzuna. (0,5 PUNTU)

3. ATALA: TESTUA

BERRIA, DIRU POLITIKA, 2023ko otsailak 2

EBZk %3ra igo ditu interesak, eta martxoan %3,5era iristeko asmoa du

Eurogunea atzeraldian ez sartzeak eta inflazioa jaisteak ez du banku zentrala iragarritako bidetik atera. Interes tasak mugatik «urrun» daudela esan du Lagardek



Christine Lagarde EBZko presidentea.

Euroguneko azken datu ekonomikoak uste baino txukunagoak izan dira, baina horrek ez du Europako Banku Zentrala bere bidetik aterako. Energiaren eta Ukrainaren gerraren eskutik kontrolpetik ihes egin dion inflazioa jaitea du helburu, %2ra epe erdian, eta horretarako uztailean hasitako tratamendua — interes tasak igotzea— funtzionatzen ari dela uste duenez, pilula gehiago ematea erabaki du: beste puntu erdiz handitu ditu bere interes tasak, eta martxoaren 16ko bileran gauza bera egiteko «asmoa» duela aurreratu du. Hortik aurrera zer egingo duen? Datuek esango dute.

Gaurko erabakiarekin, interes tasa ofiziala %2,5etik %3ra pasatu da, eta maila horretan izango da hurrengo hilabete erdian. Kopuru hori ordaindu behar diote euroguneko bankuek EBZtik haren dirua hartu nahi badute. Aitzitik, sobran daukaten likidezia EBZn utzi nahi badute, %2,5 eman beharko diote, orain arte baino puntu erdi gehiago; gordailu tasa deritzo horri, eta adituek gero eta gehiago erreparatzen diote.

EBZ noraino iritsiko den galderari zeharka erantzun die Lagardek: «Beharrezkoa dena egingo dugu %2ko inflazioa lortzeko. Oso urrun gaude oraindik». Ez da hori Mendebaldeko beste bi banku zentral nagusien iritzia; AEBetako Erreserba Federalak %4,75era handitu ditu interes tasak, eta Ingalaterrako Bankuak %4ra, baina biek iradoki dute goia jotzetik gertu daudela.

EBZn, berriz, interes tasak oraingoan eta hurrengoan 0,5 puntu igotzeko erabakiak «oso adostasun zabala» izan duela azaldu du Lagardek, baina pentsatzekoa da martxoan, inflazioak behera egiten jarraitzen badu, berriro piztuko dela belatzen eta usoen arteko lehia historikoa: inflazioa kosta ahala kosta ito behar dela diotenak dira belatzak, eta hazkunde ekonomikoa bera itotzeko arriskuari erreparatzen diotenak, berriz, usoak.

Aldi berean, inflazioak beherako bidea hartu du, energia merkatu egin delako azken hilabeteetan eta, Lagarderen esanetan, «diru politikak funtzionatzen duelako». Urrian %10,6ra iritsi zen eurogunean, euroa diru denetik inoiz ikusiko gabeko kopuru batera. Orduz geroztik, apaltzen ari da.

Kopuru handia da oraindik ere, eta bi kopuru kezagarri ditu atzean. Herritarrentzat, eta batez ere diru sarrera apalak dituztenentzat, elikagaiak duela urtebete baino %14 garestiago daude —%13,8, abenduan—. Bankari zentralentzat, berriz, kezagarriagoa da azpiko inflazioarena (%5,2); elikagai freskoak eta energia alde batera uzten dituen indize horrek erakusten du zein neurriraino dagoen inflazioa ekonomiaren sustraietaraino sartuta. EBZren asmoa da interes tasak azpiko inflazioaren mailara heltzea, hartara jarduera ekonomikoa murrizteko neurrira iristeko—uneotan, maileguren interes erreala negatiboa da, inflazioaren azpitik daudelako—. «Maila murriztaile batera iritsi behar dugu», azpimarratu du Lagardek.

Lagardek geopolitikaz ere hitz egin du, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraz, pandemiaren balizko gogortzeaz, Txinako hazkundeak gaiak eskuratzea zailtzen duela esateaz. Hornidura-kateetan badira presioak retail sektoreko prezioak igo ditzaketanak. Eta Txinako jardueraren errebote altuago batek eragina izan lezake *commodity*-en prezioan. Soldatak igotzeko itxaropenak bezalako etxeko faktoreek ere prezioak bultzatzen dituzte. Aldiz, energia-prezioen jaitsierak orain arte bezala jaisten jarraitzen badu, espero baino azkarrago murriztu ditzake mailak, azpikoa barne".

Gobernu Kontseiluaren arabera, orain ere "norabideari eutsiko dio", baina martxotik aurrera bere diru-politikaren bidea ebaluatuko du. Eta hemen erakundeak bere sinesgarritasunari eragiten dion sendotasun-arazo larria du. "Interes-tasak maila murriztaileetan mantentzeak inflazioa murriztuko du denborarekin, eskaria geldiaraztean, eta inflazio-itxaropenak etengabe igotzeko arriskuaren aurka ere babestuko du".

Euroaren eremuko gobernuei mezu bat igorri die EBZk: buka ditzatela lehenbailehen herritarrak eta enpresak energia garestitiki babesteko neurriak, halakorik ez egiteak epe erdira inflazioa handituko duelako.

EBZk interes tasak handitzeak ondorio zuzena du herritarren eta enpresen artean, maileguak garestitzea baitakar. Indizerik ezagunena, Euriborra, %3,446ra iritsi da gaur. Horren ondorioz, tasa aldakorreko hipoteka mailegua orain berritu behar dutenek gehiago ordaindu beharko diote bankuari. Igoera berrehun eurotik gorakoa da hileroko mailegu berria dutenentzat —indarraldiaren lehen urteetan interes handiagoak ordaintzen dira—.

TESTUA IRAKURRI ETA ERANTZUN GALDERA HAUEI:

- a) **INFLAZIO** kontzeptuaren azalpena eman ezazu (0,5 PUNTU).
- b) Azaldu ezazu prezioen interes-tasen gorakadak ekonomiaren kontsumo-prezioen mailari eragiten dion mekanismoa.
Ez ahaztu diru-merkatuan eta ondasunen eta zerbitzuen merkatuan gertatzen diren aldaketak irudikatzea (Eskaintza agregatua/ Eskari agregatua). (0,5 PUNTU).
- c) Zer ondorio izan ditzake moneta-politika murriztaile batek enpresentzat? (0,5 PUNTU).
- d) Azaldu Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka belikoak *commodity*-en (lehengaiak) prezioan duen eragina (0,5 PUNTU).